# AHT Gelditu! ante la decisión del Gobierno francés de posponer el proyecto de alta velocidad

AHT GELDITU! ELKARLANA :: 02/07/2013

[Cast/Eusk] Para AHT GELDITU!, el TAV debe paralizarse de inmediato, y debe paralizarse para siempre. Son múltiples las razones

**Castellano**

**Comunicado de AHT Gelditu! Elkarlana ante la decisión del Gobierno francés de posponer el proyecto de alta velocidad entre Burdeos y Hendaia:**

Para AHT Gelditu!, coordinadora de oposición al TAV, la decisión del Gobierno francés de posponer el proyecto de construir una nueva línea de Alta Velocidad entre Burdeos y Hendaia más allá del año 2030 demuestra que el proyecto de la “Y vasca” está fracasando. Decimos fracaso, porque la “Y vasca” se queda sin conexión en Alta Velocidad con Europa, al tiempo que Adif ya ha decidido igualmente aplazar sine die los proyectos de alta velocidad en el enlace navarro y baraja seriamente hacer lo mismo entre Burgos y Vitoria.

Ahora que ha terminado el tiempo de la sobreabundancia, Francia, Adif y el gobierno de Madrid, no han tenido más remedio que adaptarse a la realidad de que el TAV es un despilfarro inasumible, confirmando que ahora más que nunca el TAV no tiene lugar, no tiene cabida. Parar las obras y realizar un severo replanteamiento del proyecto debiera ser la respuesta de los gobiernos navarro, vasco y del Ministerio de Fomento, como única forma de responder a las crecientes interrogantes (económicas, técnicas, financieras...) que afectan a este macro proyecto. Pero no hay más ciego que el que no quiere ver. En este sentido, la esforzada imagen que la consejera Ana Oregi y su homólogo navarro Luis Zarraluqui pretenden dar de “objetividad” en el tratamiento de la controversia del TAV resulta grotesca, una mascarada imposible de ocultar o camuflar. Carecen de argumentos para defender la continuidad de dicho proyecto y están intentando jugar la baza de los hechos consumados, practicando la política del avestruz. Así, el Gobierno Vasco no solo sigue con su tramo gipuzcoano sino que además teatraliza en el Congreso de Madrid la bravuconería de querer gestionar también las obras de la Y vasca que Adif ha congelado en el ramal Bilbo-Gasteiz. De manera que, si no lo impedimos, sucederá que dentro de algunos años la CAV podría disponer de una gigantesca red de Alta Velocidad que no servirá para nada. En la construcción de esta macro obra se han cometido errores muy graves y creemos que ya es hora de establecer las consiguientes responsabilidades, aunque de antemano ya nos imaginamos que ningún promotor del TAV querrá asumir su parte.

La suspensión del proyecto Burdeos-Irun afecta de lleno a la “Y vasca” y demuestra que se nos está imponiendo una macro-infraestructura que no tiene ninguna justificación ni rentabilidad en términos económicos y sociales. La decisión del Gobierno francés es además una prueba de la manipulación y del fraude que el Gobierno Vasco ha mantenido durante años con el TAV al afirmar que la conexión con Europa había sido objeto de “numerosos acuerdos de carácter internacional”. Lo cierto es que el Gobierno Vasco ha ocultado a

sabiendas durante los últimos veinte años las persistentes incertidumbres que afectaban a la conexión transfronteriza, de la misma forma en que se ha dedicado a mentir sobre el coste social, económico y ecológico del proyecto y ha insultado a la oposición al TAV allí donde ésta se ha manifestado.

Para AHT GELDITU!, el TAV debe paralizarse de inmediato, y debe paralizarse para siempre. Son múltiples las razones por las que pensamos que esta infraestructura no debe funcionar jamás. El TAV es un proyecto ecológicamente devastador y económicamente absurdo. Destructor del territorio, gran despilfarrador de energía, ruidoso, el TAV acrecienta la centralización en las grandes urbes en detrimento de los pueblos pequeños y ciudades medianas, fomenta la hipermovilidad y es elitista: la mayor parte de los ciudadanos lo utilizan muy poco o nunca, y sólo una minoría se sirve de él con cierta frecuencia. Además, el TAV y las grandes obras de infraestructura son una de las causas de la actual crisis, al conllevar el desvío de enormes cantidades de recursos públicos hacia macro-proyectos sin ninguna rentabilidad económica y social. A este respecto, denunciamos con energía el verdadero derroche económico que el Gobierno vasco, el navarro y Fomento están haciendo con el TAV y manifestamos que éste es un buen momento para parar esta sangría, puesto que en el caso de la “Y vasca” aún falta por gastar el 70% del coste total de la obra y en Nafarroa la ejecución del proyecto no ha hecho más que empezar. Por todo ello, AHT GELDITU! insta al Gobierno Vasco, al Navarro y al Ministerio de Fomento a reflexionar y a no perder esta nueva oportunidad para paralizar las obras del TAV. Amplios sectores de la sociedad se hacen el tipo de reflexión que aquí transmitimos y sostienen esta demanda.

Finalmente queremos felicitar a la población en Iparralde y a la Coordinadora de Asociaciones de Defensa del Entorno (CADE). Como bien decía su portavoz Victor Pachon en la reciente movilización de Senpere, donde ya era conocida la decisión anunciada pocos días después por el Gobierno francés: “Unimos nuestra lucha contra el TAV a una lucha más amplia contra la desmesura, el despilfarro y por un desarrollo más humilde. No es la hora de arrogarse la última palabra sino la hora de aprehender la lucha en su globalidad”.

En consecuencia, es el momento de sostener con más razones que nunca la lucha popular en defensa de la tierra y por la paralización del TAV. De ahí que AHT GELDITU! también llama a participar en la marcha de bicis desobediente contra el TAV organizada por el movimiento Mugitu Mugimendua que se realizará del 25 de julio al 1 de agosto y que partirá desde Altsasu y finalizará en Donostia.

**Euskera**

**AHT GELDITU! Elkarlanaren komunikatua, gobernu frantziarrak hartu duen erabakia dela eta:**

AHT GELDITU! Elkarlanaren ustez, Bordeletik Hendaiara Abiadura Handiko trenbidea eraikitzeko asmoa 2030 urtetik goitik atzeratzeko Frantziako gobernuak hartu duen erabakiak “Euskal Y”-aren egitasmoa porrot egiten ari dela erakusten du. Porrota, “Euskal Y”-a Europarekiko Abiadura Handiko loturarik gabe gelditu delako, eta aldi berean, Nafarroako lotura nahiz Gasteiz eta Burgos arteko zatian ere Adifek Abiadura Handiko egitasmoak eperik gabe atzeratzea erabaki duelako. Hau da, oparotasun garaiak amaitutzat

emanda, bai Frantziak eta bai Adifek zein Espainiako gobernuak AHTa bere gain har ezin dezaketen xahuketa bat dela onartu behar izan dute, AHTa beste erremediorik gabe egungo errealitatean lekuz kanpo dagoela berretsita. Hortaz, obrak geldiarazi eta egitasmo osoaren birplanteaketa zorrotz batekin erantzun behar liekete Eusko Jaurlaritzak, Nafar Gobernuak eta Sustapen Ministerioak AHTren inguruan egunetik egunera pilatzen ari diren zalantza ekonomiko, tekniko eta finantzieroei. Alabaina, jakina da ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez dagoela: zinez, AHTren auzian Ana Oregi kontseilariak eta Luis Zarraluqui Nafarroako bere homologoak agertu nahi duten ustezko “objetibotasuna” ezin disimula daitekeen maskarada lotsagarria suertatzen ari da. AHTren egitasmoarekin jarraitzeko ez daukate argudiorik eta bi gobernuok egite kontsumatuen politikaren alde ari dira jokatzen, ostrukaren politika eginez. Hala, Jaurlaritzak Gipuzkoako zatiekin aurrera darrai eta horrez gain Bilbo eta Gasteiz arteko adarrean Adifek izoztu dituen eraikuntza lanak ere bere gain hartu nahian antzezpen ahoberoa eskeini digu Madrilgo kongresuan. Hartara, EAEn ezertarako balioko ez duen izugarrizko AHT sarearekin aurkituko gara urte batzuren buruan, herritarrek ekiditen ez badugu behintzat. Izan ere, AHTren egitasmoarekin errore oso larriak egin dira eta ardurak argitzeko ordua iritsi da EAEn Nafarroan bezalaxe.
Frantziako gobernuaren erabakira berriro etorrita, Bordele eta Irun arteko AHT egitasmoaren etendurak argi erakusten du inolako justifikaziorik zein ekonomia eta gizarte arloan bidegararritasunik ez duen makro-azpiegitura inposatzen ari zaizkigula. Erabaki horrek “Euskal Y”-ari bete-betean eragiten dio eta Eusko Jaurlaritzak urte hauek guztietan erabili duen manipulazioa eta iruzurra agerian uzten du bestalde, haren esanetan AHTren Europarekiko lotunea “nazioarteko hainbat akordio”tan bermatuta baitzegoen. Egia, ordea, Eusko Jaurlaritzak azken hogei urteetan mugazgaindiko lotunearen asmoa birritan kolokan jarri duten zalantzak maltzurki ezkutuan gorde dituela da, horrekin batera egitasmoaren kostu sozial, ekonomiko eta ekologikoaren inguruan gezurretan ibili eta AHTren kontrako mugimendua iraintzen aritu den bezala.
AHT GELDITU! Elkarlanaren ustez, AHTa berehala gelditu eta betirako gelditu beharra dago. Arrazoiak asko dira AHTa abian inoiz jarri behar ez dela esateko. Azpiegitura hori ekologikoki suntsitzailea eta ekonomikoki zentzugabea da. AHTa energia zurrupatzaile handia eta lurraldearen txikitzailea da, zaratatsua, eta herri txiki nahiz hiri ertainen kaltetan hirigune handien zentralizazioa areagotzea dakar berekin. Hipermugikortasuna sustatzen du eta elitista da: herritarren gehiengoak oso gutxitan baino --inoiz ezpada-- erabili ohi ez duen garraiobidea da, gutxiengo batek soilik erabiltzen duelarik maiztasunarekin. Gainera, AHT eta azpiegitura-lan erraldoiak egungo krisiaren eragile bat dira, baliabide publiko kopuru itzelak inolako errentagarritasun ekonomiko eta sozialik ez duten makro-proiektuetan alperrikaltzen baitira. Honi dagokionean, gogor salatzen dugu Eusko Jaurlaritza, Nafar Gobernua eta Sustapen Ministerioa AHTrekin egiten ari diren xahuketa, eta Hego Euskal Herrian AHTren obrak geldiarazteko tenorean gaudela aldarrikatzen dugu, “Euskal Y”-aren kasuan egin beharreko gastu osoaren %70a egitea falta baita oraindik, eta Nafarroan eraikuntza-lanak hasi besterik ez direnez.

Horregatik guztiagatik, AHT GELDITU! Elkarlanak hausnarketa egiteko eta AHTren obrak behingoz gelditzeko aukera berri hau alperrik galdu ez dezaten galdegiten die Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako gobernuari eta Espainiako Sustapen ministerioari. Eskakizun honek jende askoren iritziarekin bat egiten duelakoan gaude gainera.

Bukatzeko, Iparraldeko herritarrak eta CADE Ingurumen Defentsarako Elkarteen

Koordinadora zoriondu nahi ditu AHT GELDITU! Elkarlanak. Ipar Euskal Herriko AHTren aurkarien bozeramale Victor Pachonek Senperen berriki egindako mobilizazioan adierazi zuenez, “AHTren aurkako gure borroka neurrigabekeriaren eta xahuketaren kontrako nahiz garapen umilago baten aldeko borroka zabalago baten parte da. Gaurkoa ez da beraz harrokeriarekin azken hitza guretzat hartzeko unea, borrokaren zentzua bere osotasunean atzemateko unea baizik”.
Hartara, inoiz baino arrazoi gehiagorekin, lurraren aldeko eta AHT geldiarazteko herri borrrokari eusteko garaia da. Eta ildo honetan, datorren uztailaren 25tik abuztuaren 1era Mugitu! Mugimenduak antolatuta egingo den AHTren aurkako bizikleta martxa desobeditzailean parrtehartzeko deitzen dugu, Altsasutik abiatu eta Donostian amaituko den mobilizazio berri honekin bat eginez.

---

*https://eh.lahaine.org/aht-gelditu-ante-la-decision-del-gobiern*